Bereziki, honako kasu hauetan joko da %33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila frogatuta dagoela: ezintasun iraunkor osoagatik, erabatekoagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsio bat aitortua duten Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, eta lanerako ezintasun iraunkorragatik edo ezgaitasunagatik erretiro edo erretreta pentsio bat aitortua duten klase pasiboetako pentsiodunen kasuan.

Edozein modutara ere, ezintasunaren aitorten judiziala Kode Zibilean jasotako arrazoiengatik ematen bada, zerga honetan %65eko edo hortik gorako minusbaliotasun maila duten pertsona ezgaituentzat aurreikusita dauden berariazko xedapenak aplikatuko dira.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 24.3. eta 84. artikuluetan aipatzen dituen kenkariak edo hobariak izateko, ezgaitasuna ekarri duten zirkunstantziak zergaren sortzapen egunean gertatzen direla frogatu beharko da.

Hala ere, minusbaliotasunek edo ezintasunek beren-beregi adierazita badute iraunkorrak direla, edo zergaren sortzapen data haien kalifikazioaren baliozkotasun epearen barruan badago, orduan ez da agiririk eskatuko sortzapen eguneko minusbaliotasuna edo ezintasuna frogatzeko.

II. KAPITULUA

KENKARIA OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEAGATIK

68. artikulua.—*Ohiko etxebizitzaren kontzeptua*

1. Oro har, ohiko etxebizitzatzat hartuko da zergadunak gutxienez hiru urteko epe jarraituan egoitza gisa daukan edozein eraikin.

Hala ere, etxebizitza ohikoa izan dela joko da, epe hori igaro ez arren, zergaduna hiltzen denean, edo ezinbestez etxebizitza aldatzera behartzen duten zirkunstantziak gertatzen direnean, hala nola: etxebizitza ez egokitzea zergadunaren edo harekin bizi den ondorengoaren edo aurreko ahaidearen, ezkontidearen edo izatezko bikoteko kidearen ezintasun mailara edo zergaren kuota osoan kenkaria egiteko eskubidea ematen duen pertsonarenera; senar-emaztegaiak ezkontzea; senar-emazteak banantzea; izatezko bikotea desagitea, lantokia aldatzea; lehen enplegua lortu edo enplegua aldatzea; edo arrazoitutako antzeko beste egoerak gertatzea.

Ez dira ohiko etxebizitzaren kontzeptuaren barruan sartuko lora-tegiak, parkeak, igerilekuak eta kirol instalazioak, garajeak, eta, oro har, eranskinak edo beste edozein osagai edo elementu, etxebizitza berez ez dena, salbu eta elementu horiek etxebizitzarekin batera erregistroko finka bakar bat direnean.

Famili unitateko kideak hiri-lurreko ondasun higiezin bat baino gehiagoren titularrak badira, horietako bat bakarrik hartuko da ohiko etxebizitza legez. Horretarako, famili unitateak bere bizitza interesen eta harreman pertsonal, sozial eta ekonomikoen gune nagusitzat duena hartuko da ohikotzat.

No obstante, la referida condición legal de persona con discapacidad se considerará acreditada cuando:

a) Sea certificada por el órgano competente de la Diputación Foral, por el Instituto de Mayores y Servicios Sociales o por el órgano correspondiente de las Comunidades Autónomas.

A este respecto no será preciso que las certificaciones estén expedidas especialmente a este efecto, siendo válido también cualquier documento expedido por los referidos órganos en el que conste, de forma indubitada, el grado de discapacidad y su relación con los baremos a que se hace referencia, respectivamente, en los artículos 23 y 84 de la Norma Foral del Impuesto.

b) Se perciba prestación reconocida por la Seguridad Social o por el Régimen Especial de Clases Pasivas, como consecuencia de incapacidad permanente, siempre que para su reconocimiento se exija el grado de minusvalía o de discapacidad a que se refieren los artículos 23 y 84 de la Norma Foral del Impuesto.

En particular, se considerará acreditado un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100 en el caso de los pensionistas de la Seguridad Social que tengan reconocida una pensión de incapacidad permanente total, absoluta o gran invalidez y en el caso de pensionistas de clases pasivas que tengan reconocida una pensión de jubilación o de retiro por incapacidad permanente para el servicio o inutilidad.

En todo caso, la declaración judicial de incapacidad por las causas establecidas en el Código Civil determinará la aplicabilidad de las disposiciones específicas de este Impuesto previstas a favor de las personas discapacitadas con grado de minusvalía igual o superior al 65 por 100.

2. Para disfrutar de las deducciones o bonificaciones a que se refieren los artículos 23.3 y 84 de la Norma Foral del Impuesto deberá acreditarse que las circunstancias determinantes de la discapacidad concurren en la fecha de devengo del Impuesto.

No obstante, cuando se trate de minusvalías o discapacidades en las que conste expresamente su carácter permanente, o en las que su calificación tenga un plazo de validez en el que esté comprendida la fecha de devengo del Impuesto, no se exigirá que el documento acreditativo de la minusvalía o discapacidad se refiera a la fecha de devengo.

CAPÍTULO II

DEDUCCIÓN POR ADQUISICIÓN DE VIVIENDA HABITUAL

Artículo 68.—*Concepto de vivienda habitual*

1. Con carácter general, se considera vivienda habitual aquella edificación en la que el contribuyente resida durante un plazo continuado de, al menos, tres años.

No obstante, se entenderá que la vivienda tuvo el carácter de habitual cuando, a pesar de no haber transcurrido dicho plazo, se produzca el fallecimiento del contribuyente o concurren otras circunstancias que necesariamente exijan el cambio de vivienda, tales como la inadecuación de la vivienda al grado de discapacidad del contribuyente o de un ascendiente, descendiente, cónyuge o pareja de hecho, que conviva con el contribuyente, o de alguna persona que genere el derecho a practicar la deducción de la cuota íntegra de este Impuesto, celebración del matrimonio, separación matrimonial, extinción de la pareja de hecho, traslado laboral, obtención del primer empleo o de otro empleo, u otras circunstancias análogas justificadas.

No formarán parte del concepto de vivienda habitual, los jardines, parques, piscinas e instalaciones deportivas, los garajes y, en general, los anexos o cualquier otro elemento que no constituya la vivienda propiamente dicha, excepto en los casos en que los mismos formen con la vivienda una finca registral única.

En los supuestos en los que los miembros de la unidad familiar sean titulares de más de un bien inmueble urbano se entenderá que sólo uno de ellos tiene la consideración de vivienda habitual. A tal efecto, tendrá esta consideración aquélla en la que la unidad familiar tenga su principal centro de intereses vitales, relaciones personales, sociales y económicas.

2. Etxebizitza bat zergadunaren ohiko bizilekua izan dadin, benetan eta iraunkortasunez bizi behar du zergadunak berak hartan, hamabi hilabeteko epean zehar, etxebizitza erosi edo obrak amaitu direnetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, etxebizitzak ez dio ohikoa izateari uzten honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Zergaduna hiltzen denean edo etxebizitzan bizitzea nahitaez eragozten duten bestelako inguruabarrak gertatzen direnean, artikuluko honetako 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

b) Zergadunak ohiko etxebizitza duenean kargu edo enpleguaren zioz, eta eskuratutako etxebizitza erabiltzen ez duenean; horrelakoetan, hamabi hilabeteko epea, lehen aipatutakoa, kargua edo enplegua uzten duen egunetik aurrera zenbatuko da.

Lokalak etxebizitza gisa gaitzen badira, etxebizitza lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia ematen denetik aurrera hasiko da zenbatzen paragrafo honen lehenengo lerroaldean aipatzen den hamabi hilabeteko epea.

3. Aurreko paragrafoetan ezarritako salbuespenak aplikatzekoak direnean, etxebizitza aldatzea nahitaez dakarten edo etxebizitzan bizitzea eragozten duten inguruabarrak gertatu arte egingo da ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria, salbu eta zergadunak kargu edo enpleguaren zioz erabiltzen duenean ohiko etxebizitza; horrelakoetan, kontzeptu honen ziozko kenkariak egin ahal izango ditu, egoera horrek dirauen bitartean, eta etxebizitza erabiltzen ez bada.

Ondorio horietarako, aurrekoarekin parekatuko da zergadunak etxebizitzaren beharra konpentsatzeko kopuruak jasotzea eta, gainera, etxebizitza famili unitatetik kanpoko pertsonak ez erabiltzea.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 44.b) eta 51. artikuluetan jasotzen diren salbuespenak aplikatzeko bakarrik, zergaduna ohiko etxebizitza eskualdatzen ari dela ulertuko da artikuluko honetan jasotakoaren arabera eraikin hori une horretan bere ohiko etxebizitza denean edo, bestela, eskualdatu aurreko bi urteetako edozein egunetara arte halakotzat hartu denean.

69. artikulua.—*Ohiko etxebizitza erostea*

1. Honako kasu hauek ohiko etxebizitza erostearen parekoak dira:

a) Etxebizitza handitzea; baldin eta bizi izateko den azalera handitzen bada, bai haize ageriko aldea itxiz, bai beste edozelan, modu iraunkorrean eta urtaro guztietan zehar.

b) Ohiko etxebizitza eraikitzea; zergadunak zuzenean ordaintzen baditu obrak egitearen ondoriozko gastuak, edo konturako kopuruak ematen badizkio obren sustatzaileari, beti ere obra horiek, gehieze, lau urteko epean amaitzen direnean, inbertsioa hasten denetik zenbatuta.

c) Higiezinaren azalera-eskubidearen erostea; baldin eta higiezin hori ohiko etxebizitza izango bada, betiere herri titulartasuneko lurzorua gainean eraikitzen denean.

d) Ohiko etxebizitza egokitzeko egiten diren obra eta instalazioak, bai eta eraikinaren elementu erkideak aldarazteko egiten direnak ere, baldin eta nahitaezko pasabide badira hiri-lurreko finKaren eta herriko bidearen artean, berbarako, eskailerak, igogailuak, korridoreak, atariak edo arkitekturako beste edozein osagai, eta ezinduek zentzumen-komunikaziorako dauzkaten oztopoak gainditzeko edo pertsona horien segurtasuna hobetzeko balio duten dispositibo elektronikokoak ezartzeko egiten direnak ere bai.

Era berean, kontzeptu honen barruan sartuta daude idatz-zati honetako azken lerroaldean aipatzen diren pertsonetako batek errentari, azpierrenerari edo gozamedun gisa okupatutako etxebizitzetan egiten diren egokitze lan eta instalazioak.

Egokitze obra eta instalazioei dagokienez, araudi honetako 67. artikuluko 1. paragrafoa a) idatz-zatian aipatzen diren organoetako batek ziurtatu behar du beharrezkoak direla ezinduen irisgarritasunerako eta zentzumen-komunikaziorako, hau da, haiek duintasunarekin eta modu egokian bizitzeko.

2. Para que una vivienda constituya la residencia habitual del contribuyente debe ser habitada de manera efectiva y con carácter permanente por el propio contribuyente, en un plazo de doce meses, contados a partir de la fecha de adquisición o terminación de las obras.

No obstante, se entenderá que la vivienda no pierde el carácter de habitual cuando se produzcan las siguientes circunstancias:

a) Cuando se produzca el fallecimiento del contribuyente o concurran otras circunstancias que necesariamente impidan la ocupación de la vivienda, en los términos previstos en el apartado 1 de este artículo.

b) Cuando el contribuyente disfrute de vivienda habitual por razón de cargo o empleo y la vivienda adquirida no sea objeto de utilización, en cuyo caso el plazo de doce meses antes indicado comenzará a contarse a partir de la fecha del cese en el cargo o empleo.

En el caso de habilitación de locales como vivienda, el plazo de doce meses referido en el primer párrafo de este apartado empezará a computar a partir de la fecha del otorgamiento de la licencia de primera utilización u ocupación.

3. Cuando sean de aplicación las excepciones previstas en los apartados anteriores, la deducción por adquisición de vivienda habitual se practicará hasta el momento en que se den las circunstancias que necesariamente exijan el cambio de vivienda o impidan la ocupación de la misma, salvo cuando el contribuyente disfrute de vivienda habitual por razón de cargo o empleo, en cuyo caso podrá seguir practicando deducciones por este concepto mientras se mantenga dicha situación y la vivienda no sea objeto de utilización.

A estos efectos se asimilarán los supuestos en que el contribuyente perciba cantidades para compensar la necesidad de vivienda y además la vivienda adquirida no se encuentre utilizada por personas ajenas a su unidad familiar.

4. A los exclusivos efectos de la aplicación de las exenciones previstas en los artículos 44.b) y 51 de la Norma Foral del Impuesto, se entenderá que el contribuyente está transmitiendo su vivienda habitual cuando, con arreglo a lo dispuesto en este artículo, dicha edificación constituya su vivienda habitual en ese momento o hubiera tenido tal consideración hasta cualquier día de los dos años anteriores a la fecha de transmisión.

Artículo 69.—*Adquisición de vivienda habitual*

1. Se asimilan a la adquisición de vivienda habitual los siguientes supuestos:

a) Ampliación de vivienda, cuando se produzca el aumento de su superficie habitable, mediante cerramiento de parte descubierta o por cualquier otro medio, de forma permanente y durante todas las épocas del año.

b) Construcción, cuando el contribuyente satisfaga directamente los gastos derivados de la ejecución de las obras, o entregue cantidades a cuenta al promotor de aquéllas, siempre que finalicen en un plazo no superior a cuatro años desde el inicio de la inversión.

c) La adquisición del derecho de superficie del inmueble que vaya a constituir su vivienda habitual, cuando el mismo se haya constituido sobre un suelo de titularidad pública.

d) Las obras e instalaciones de adecuación que se efectúen en la vivienda habitual, así como las de modificación de los elementos comunes del edificio que sirvan de paso necesario entre la finca urbana y la vía pública, tales como escaleras, ascensores, pasillos, portales o cualquier otro elemento arquitectónico, o las necesarias para la aplicación de dispositivos electrónicos que sirvan para superar barreras de comunicación sensorial o de promoción de seguridad de los discapacitados.

Asimismo, se incluyen dentro de este concepto las obras e instalaciones de adecuación que se efectúen en viviendas ocupadas a título de arrendatario, subarrendatario o usufructuario por alguna de las personas señaladas en el último párrafo de esta letra.

Las obras e instalaciones de adecuación deberán ser certificadas por uno de los órganos a que se refiere la letra a) del apartado 1 del artículo 67 del presente Reglamento como necesarias para la accesibilidad y comunicación sensorial que facilite el desenvolvimiento digno y adecuado de las personas con discapacidad.

Aipatu obrak honako hauek eginak behar dute izan: ezgaitua den zergadunak, ezgaitua den aurreko edo ondorengo ahaide batekin, ezgaitua den ezkontidearekin edo izatezko bikoteko kidearekin bizi den zergadunak, Zergari buruzko Foru Arauko 84. artikuluan jasotzen den kenkaria egiteko eskubidea ematen dion pertsona ezindu batekin bizi den zergadunak eta, azkenik, beren ohiko etxebizitzaren elementu erkideak aldatzeko lanak ordaintzera behartuta dauden jabeak.

2. Epaileak onartutako konkurtsoaren ondorioz sustatzaileak ez baditu eraikuntza obrak lau urteko epea igaro baino lehen amaitzen, hau da, artikuluko honetako 1. idatz-zatiko b) letrak aipatzen duena igaro aurretik, edo ezin baditu etxebizitzak epe berean eman, orduan epe hori beste lau urterako luzatuko da.

Kasu horietan, hamabi hilabeteko epea, aurreko artikuluko 2. paragrafoko lehenengo letraz aipatzen dena, etxebizitza ematen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Paragrafo honetan ezartzen epe luzatzeak ondorioak izan dituzan, zergadunak zergaldiko autoliquidazioari, hau da, hasierako epea bete ez den zergaldikoari, etxebizitzan egindako inbertsioak egiaztatzen dituzten frogagiriak erantzen behar dizkio, edo egoera horietarik bat gertatu dela frogatzen duen agiria.

Paragrafo honetako kasuetan, zergadunak ez du ezkein sarrearik egin beharko, eraikuntza obrak amaitzeko lau urteko epe orokorra ez betetzearen zioz.

3. Zergadunari leporatu ezin zaizkion eta obrak eteta dakarten salbuespeneko bestelako inguruabarren bat dela-eta obra horiek ezin badira amaitu artikuluko honetako 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen den lau urteko epea igaro baino lehen, orduan zergadunak epea luzatzeko eskatu ahal izango dio Zerga Administrazioari, lau urteko epea betetzen ez den egunaren ondorengo hilabetearen barruan.

Eskabidean agertu beharko dute epea ez betetzea sortarazi duten zioak, bai eta eraikuntza obrak amaitzeko beharrezkotzat hartzen den denboraldia ere; denboraldi horrek ezin du lau urtetik gorakoa izan.

Aurreko letraz aipatzen adierazitakoari dagokionez, zergadunak frogagiri egokia ekarri beharko du.

Agiriak ekarriko dira eta, horiek ikusita, Zerga administrazioak erabakiko du eskatu den luzapen hori bidezkoa denentz, bai eta zenbatekoa izango den luzatuko den epea ere; eta epe horrek ez du nahitaez zergadunak eskatutakoa izan behar.

Epeak luzatzeko egindako eskaerak ezetsitatzeko joko dira baldin eta eskaerok ez badira hiru hilabeteko epean beren-beregi ebazten.

Luzapena ematen bada, ez-betetzea gertatzen den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

4. Honako hauek ez dira etxebizitza erosketatzat hartuko:

a) Artapen edota konponketa gastuak, araudi honetako 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Hobekuntzak.

c) Garaje-sailak, lorategiak, parkeak, igerilekuak eta kirol instalazioak erostea, eta, oro har, eranskinak edo beste edozein osagai erostea, baldin eta horiek ez badira ohiko etxebizitzaren kontzeptuaren barrukoak, araudi honetako 68. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

5. Birgaitzea izango dira jabeak ohiko etxebizitzan egiten dituen obrak, baldin eta ebazpen bat eman bada, obra horiek babespeko jarduketara gisa kalifikatzeko edo beraiek halakoak direla adierazteko, Eusko Jaurlaritzaren 317/2002 Dekretua, abenduaren 30eko, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan xedatutakoa dela bide, edo, bestela, babesteko moduko jarduketatzat hartu bada, ekainaren 12ko 801/2005 Errege Dekretuaren arabera edo beraren ordezkari zeko arauen arabera.

Las mencionadas obras deberán efectuarse por el contribuyente discapacitado, por el contribuyente que conviva con un ascendiente, descendiente, cónyuge o pareja de hecho, que tengan la condición de discapacitado, por el contribuyente que conviva con una persona discapacitada que le origine el derecho a aplicar la deducción contemplada en el artículo 84 de la Norma Foral del Impuesto, así como por los copropietarios obligados a abonar las obras de modificación de los elementos comunes de su vivienda habitual.

2. Si como consecuencia de concurso judicialmente declarado, el promotor no finalizase las obras de construcción antes de transcurrir el plazo de cuatro años a que se refiere la letra b) del apartado 1 de este artículo o no pudiera efectuar la entrega de las viviendas en el mismo plazo, dicho plazo quedará ampliado en otros cuatro años.

En estos casos, el plazo de doce meses a que se refiere el párrafo primero del apartado 2 del artículo anterior comenzará a contarse a partir de la entrega.

Para que la ampliación del plazo prevista en este apartado surta efecto, el contribuyente deberá acompañar a la autoliquidación del período impositivo en que se hubiese incumplido el plazo inicial, tanto los justificantes que acrediten sus inversiones en vivienda como cualquier otro documento justificativo de haberse producido alguna de las referidas situaciones.

En los supuestos a que se refiere este apartado, el contribuyente no estará obligado a efectuar ingreso alguno por razón del incumplimiento del plazo general de cuatro años de finalización de las obras de construcción.

3. Cuando por otras circunstancias excepcionales no imputables al contribuyente y que supongan paralización de las obras, no puedan éstas finalizarse antes de transcurrir el plazo de cuatro años a que se refiere la letra b) del apartado 1 de este artículo, el contribuyente podrá solicitar, dentro del mes siguiente a la fecha del incumplimiento del plazo de cuatro años, a la Administración tributaria la ampliación del plazo.

En la solicitud deberán figurar tanto los motivos que han provocado el incumplimiento del plazo como el período de tiempo que se considera necesario para finalizar las obras de construcción, el cual no podrá ser superior a cuatro años.

A efectos de lo señalado en el párrafo anterior, el contribuyente deberá aportar la justificación correspondiente.

A la vista de la documentación aportada la Administración tributaria decidirá tanto sobre la procedencia de la ampliación solicitada, como con respecto al plazo de ampliación, el cual no tendrá que ajustarse necesariamente al solicitado por el contribuyente.

Se entenderán desestimadas las solicitudes de ampliación que no fuesen resueltas expresamente en el plazo de tres meses.

La ampliación que se conceda comenzará a contarse a partir del día inmediato siguiente a aquél en que se produzca el incumplimiento.

4. No se considerará adquisición de vivienda:

a) Los gastos de conservación o reparación, en los términos previstos en el artículo 40 de este Reglamento.

b) Las mejoras.

c) La adquisición de plazas de garaje, jardines, parques, piscinas e instalaciones deportivas y, en general, los anexos o cualquier otro elemento siempre que no forme parte del concepto de vivienda habitual de conformidad con lo dispuesto en el artículo 68.1 de este Reglamento.

5. Se considerará rehabilitación aquellas obras realizadas por el propietario en su vivienda habitual, cuando haya sido dictada resolución calificando o declarando a las mismas como actuación protegida en virtud de lo dispuesto en el Decreto del Gobierno Vasco 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado o, en su caso, haber sido calificada como actuación protegible de conformidad con el Real Decreto 801/2005, de 1 de julio, o normas análogas que lo sustituyan.

Aurreko lerroaldean jasotako ondorioetarako, jabeak ohiko etxebizitzan egindako obratzat hartuko dira zergadunak bere lokal bat etxebizitza gisa gaitzeko asmoz lokal horretan egindako lanak, baldin eta zergadunaren ohiko etxebizitza izango bada araudi honetako 68. artikuluan xedatzen denaren arabera.

70. artikulua.—*Etxebizitza kontuak*

1. Kreditu entitateetan, beste edozein ezarpen motatatik bereizitako kontuetan, gordailutatako kopuruak ohiko etxebizitza erosterekin parekatuko dira, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak zergadunaren ohiko etxebizitza erosteko erabiltzen badira sei urte baino lehen.

Dena den, gordailutatako kopuruak beste etxebizitza kontu batean ezarri arren ez da betetzat hartuko azken baldintza hori.

2. Kenkaria egiteko eskubidea galduko da honako kasu hauetan:

a) Zergadunak etxebizitza kontuan gordailutatako kopuruak, kenkaria egiteko eskubidea sortarazi dutenak, ohiko etxebizitza erosteko ez beste xede baterako erabiltzen baditu eta zergaren sortzapena gertatu aurretik kreditu-erakunde bereko edo beste bateko beste kontu batean oso-osorik birjartzen ez badira edo kontu horretara aldatzen ez badira. Baldin eta gordailutatako kopuruaren zati bat erabiltzen bada, orduan ulertuko da erabiltzen diren kopuruak zergadunak lehenengo gordailutatu zituenak direla.

b) Sei urte igaro badira kontua ireki zenetik, baina kenkaria egiteko eskubidea sortarazi duten kopuruak ohiko etxebizitza erosteko erabili ez badira.

c) Ondoren egiten den ohiko etxebizitzaren erosketak erosten denean kenkari honetarako eskubidea ematen duten baldintzak betetzen ez baditu.

3. Zergadun bakoitzak etxebizitza kontu bat bakarrik izan dezake.

4. Etxebizitza kontuak bereizita identifikatu behar dira Zergaren autoliquidazioan; eta, gutxienez, honako datu hauek jarriko dira:

- Kontuari dagokion entitatea.
- Kontuaren zenbakia.
- Kontuaren irekitze data.
- Ekitaldian zenbatean gehitu den kontuaren saldoa.

5. Egindako kenkariak egiteko eskubidea galduz gero, zergadunak honako hauek batu beharko dizkio kenkarirako baldintzak bete ez dituen zergaldiko zergaren kuotari: kendutako kopuruak gehi Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko aipatzen dituen berandutza interesak.

71. artikulua.—*Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik eta salbuespena berrinbertitzeagatik*

Ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik salbuespena aukeratzeko bada, zergadunak, Zergari buruzko Foru Arauko 90. artikuluko 3. paragrafoan jasotzen den 36.000 euroko zifra gutxitu ahal izateko, lehendabizi, ondare-irabazi salbuespenaren %18 egotzi behar du etxebizitza saldu duen ekitaldian.

72. artikulua.—*Familiaren etxebizitzara zuzendutako kopuruak ordaintzeko betebeharra, epaileak erabakita*

1. Epaileak erabakita, zergadunari bakarrik ezarri bazaio familiaren etxebizitza dela-eta Zergari buruzko Foru Arauko 89. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren diru kopuruetako bat ordaintzeko betebeharra, zergadunak eskubidea izango du artikuluko horretan aipatutako kenkaria egiteko bere autoliquidazioan.

Kasu horretan, kenkari gisa erabilitako kopuruak gutxitu egingo dute zergadun horren Zergari buruzko Foru Arauko 89. artikuluan aipatzen den 36.000 euroko zifra.

A los efectos de lo previsto en el párrafo anterior, tienen también la consideración de obras realizadas en su vivienda habitual por el propietario, las ejecutadas por el contribuyente en un local de su propiedad con el fin de habilitarlo como vivienda, siempre que la misma vaya a constituir vivienda habitual del contribuyente en los términos previstos en el artículo 68 de este Reglamento.

Artículo 70.—*Cuentas vivienda*

1. Se asimilan a la adquisición de vivienda habitual las cantidades que se depositen en entidades de crédito, en cuentas separadas de cualquier otro tipo de imposición, siempre que las cantidades que hayan generado el derecho a deducción se destinen, antes del transcurso de seis años, a la adquisición de la vivienda habitual.

No obstante, no se considerará cumplido esta última requisito por la mera imposición en otra cuenta vivienda de las cantidades depositadas.

2. Se perderá el derecho a la deducción:

a) Cuando el contribuyente disponga de cantidades depositadas en la cuenta vivienda que hayan generado derecho a la deducción para fines diferentes de la adquisición de su vivienda habitual y no se repongán o no se aporten íntegramente a otra cuenta de la misma o de otra entidad de crédito con anterioridad al devengo del impuesto. En caso de disposición parcial se entenderá que las cantidades dispuestas son las primeras depositadas.

b) Cuando transcurran seis años, a partir de la fecha en que fue abierta la cuenta, sin que las cantidades que hayan generado el derecho a deducción se hayan destinado a la adquisición de vivienda habitual.

c) Cuando la posterior adquisición de la vivienda habitual no cumpla las condiciones que determinan el derecho a la deducción por este concepto.

3. Cada contribuyente sólo podrá mantener una cuenta vivienda.

4. Las cuentas vivienda deberán identificarse separadamente en la autoliquidación del Impuesto, consignando, al menos, los siguientes datos:

- Entidad en la que se ha abierto la cuenta.
- Número de la cuenta.
- Fecha de apertura de la cuenta.
- Incremento del saldo de la cuenta correspondiente al ejercicio.

5. Cuando se pierda el derecho a las deducciones practicadas, el contribuyente vendrá obligado a sumar a la cuota del Impuesto devengada en el ejercicio en que se hayan incumplido los requisitos, las cantidades deducidas más los intereses de demora a que se refiere el artículo 26 de la Norma Foral General Tributaria.

Artículo 71.—*Deducción por adquisición de vivienda habitual y exención por reinversión*

En el supuesto de que se opte por la exención por reinversión en vivienda habitual, a efectos de la minoración de la cifra de 36.000 euros prevista en el artículo 89.3 de la Norma Foral del Impuesto, el contribuyente vendrá obligado a imputar en el ejercicio de la enajenación de la misma, en primer lugar, el 18 por 100 de la ganancia patrimonial exenta.

Artículo 72.—*Obligación de satisfacer cantidades destinadas a la vivienda familiar por decisión judicial*

1. En los supuestos en los que, por decisión judicial, se hubiera establecido la obligación de satisfacer, por la vivienda familiar, alguna de las cantidades a que se refiere el artículo 89.1 de la Norma Foral del Impuesto a cargo exclusivo del contribuyente, éste tendrá derecho a practicar en su autoliquidación la deducción a que se refiere dicho artículo.

En este supuesto las cantidades deducidas minorarán la cifra de 36.000 euros a que se refiere el artículo 89 de la Norma Foral del Impuesto de este contribuyente.

2. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da eta bakoitzaren autolikidazioan egingo da, bakoitzari dagokion proportzioan, Zergari buruzko Foru Arauko 89. artikuluko 4. paragrafoan zehazten diren ehunekoak eta muga aplikatuta.

3. Zergadun batek, batetik, familiaren etxebizitzarako diren kopuruak ordaintzen baditu, aurreko paragrafoetan ezartzen diren baldintzetan, eta, bestetik, zergadunaren beraren ohiko etxebizitza eskuratzeko beste zenbateko batzuk ordaintzen baditu, orduan, %23ko portzentajea aplikatuko du, 2.760 euroko mugarekin.

Orobat, zergadunak Zergari buruzko Foru Arauan eta araudi honetan ezarritako gainerako baldintzak eta mugak ere aplikatuko ditu.

III. KAPITULUA

KENKARIA EKONOMI JARDUERA BATEN HASIERAN INBERTITZEKO KREDITU-ERAKUNDEETAN EGITEN DIREN GORDAILUENGATIK

73. artikulua.—*Kenkaria aplikatzeko betekizunak*

1. Zergadunek kenkaria aplikatu ahal izango dute kreditu-erakundeetan, ezarpen mota guztietatik bereizitako kontuetan, ekonomi jarduera bati ekiteko gastuetarako eta inbertsioetarako gordailatzen dituzten kopuruak direla eta, artikuluko honetako hurrengo paragrafoetan ezarritako betekizunen eta inguruabarren arabera.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako kontuaren saldoa kontua zabaldu eta hiru urte igaro baino lehen erabili behar da eta bakarrik erabil daiteke ekonomi jarduera bati ekiteko edo Sozietateen gaineko Zergaren kargapeko entitate sortu berri baten partaidetza harpidetzeko.

Kenkari honi dagokionez, zergadunak ekonomi jarduera berriari ekin diola ulertuko da baldin eta aurretik antzekorik egin ez badu, ez zuzenean ez zeharka.

3. Kenkaria egiteko eskubidea galduko da honako kasu hauetan:

a) Zergadunak artikuluko honetan aipatutako kontuan gordailatutako kopuruak, kenketa egiteko eskubidea sortarazi dutenak, aurreko paragrafoan adierazitako xedeetarako ez beste baterako erabiltzen baditu eta zergaren sortzapena gertatu kreditu-erakunde bereko edo beste bateko beste kontu batean oso-osorik birjartzen ez badira edo kontu horretara aldatzen ez badira. Baldin eta gordailatutako kopuruaren zati bat erabiltzen bada, orduan ulertuko da erabiltzen diren kopuruak zergadunak lehenengo gordailatuta zituenak direla.

b) Hiru urte igaro badira kontua ireki zenetik, baina kenkaria egiteko eskubidea sortarazi duten kopuruak artikuluko honetako 2. paragrafoan zehazten den xederako erabili ez badira.

c) Hasitako ekonomi jarduerak kenkari honetarako eskubidea ematen duten baldintzak betetzen ez baditu.

4. Zergadun bakoitzak kontu bat bakarrik izan dezake artikuluko honetako 2. paragrafoan zehazten den xederako kopuruak gordailatzeko, eta zergadun bakoitzak behin bakarrik baliatu ahal du kenkarirako eskubidea.

5. Mota honetako kontuak bereizita identifikatu behar dira Zergaren autolikidazioan; eta, gutxienez, honako datu hauek jarriko dira:

- Kontuari dagokion entitatea.
- Kontuaren zenbakia.
- Kontuaren irekitze data.
- Ekitaldian zenbatean gehitu den kontuaren saldoa.

6. Egindako kenkariak egiteko eskubidea galduz gero, zergadunak honako hauek batu beharko dizkio kenkarirako baldintzak bete ez dituen zergaldiko zergaren kuotari: kendutako kopuruak gehi Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko aipatzen dituen berandutza interesak.

2. Si tal obligación correspondiera a ambos contribuyentes, la deducción se prorrateará entre ellos y se practicará en la autoliquidación de cada uno en la proporción que corresponda, con los porcentajes y el límite establecidos en el artículo 89.4 de la Norma Foral del Impuesto.

3. Cuando un contribuyente satisfaga cantidades destinadas a la vivienda familiar en los términos a que se refieren los apartados anteriores y cantidades destinadas a la adquisición de su vivienda habitual se aplicará el porcentaje del 23 por 100, con el límite de 2.760 euros.

Asimismo, el contribuyente se aplicará el resto de condiciones y límites establecidos en la Norma Foral del Impuesto y en el presente Reglamento.

CAPÍTULO III

DEDUCCIÓN POR DEPÓSITOS EN ENTIDADES DE CRÉDITO PARA LA INVERSIÓN EN EL INICIO DE UNA ACTIVIDAD ECONÓMICA

Artículo 73.—*Requisitos para la aplicación de la deducción*

1. Los contribuyentes podrán aplicar una deducción por las cantidades que se depositen en entidades de crédito, en cuentas separadas de cualquier otro tipo de imposición, destinadas a la realización de los gastos e inversiones necesarios para el inicio de una actividad económica, con arreglo a los requisitos y circunstancias contemplados en los apartados siguientes de este artículo.

2. El saldo de la cuenta a que se refiere el apartado anterior deberá destinarse exclusivamente, antes del transcurso de tres años a partir de la fecha de apertura de la misma, a la puesta en marcha de una nueva actividad económica o a la suscripción de las participaciones de una entidad de nueva creación sujeta al Impuesto sobre Sociedades.

A efectos de esta deducción, se entenderá que se ejerce una nueva actividad económica cuando el contribuyente no hubiese ejercido con anterioridad, directa o indirectamente, alguna actividad de similar naturaleza a la desarrollada como nueva.

3. Se perderá el derecho a la deducción:

a) Cuando el contribuyente disponga de cantidades depositadas en la cuenta a que se refiere este artículo que hayan generado derecho a la deducción para fines diferentes a los señalados en el apartado anterior y no se repongan o no se aporten íntegramente a otra cuenta de la misma o de otra entidad de crédito con anterioridad al devengo del Impuesto. En caso de disposición parcial se entenderá que las cantidades dispuestas son las primeras depositadas.

b) Cuando transcurran tres años, a partir de la fecha en que fue abierta la cuenta, sin que las cantidades que hayan generado el derecho a deducción se hayan destinado a la finalidad prevista en el apartado 2 de este artículo.

c) Cuando la actividad económica iniciada no cumpla las condiciones que determinan el derecho a la deducción por ese concepto.

4. Cada contribuyente sólo podrá mantener una cuenta para depositar las cantidades a destinar a la finalidad prevista en el apartado 2 de este artículo y el disfrute de la presente deducción se efectuará una única vez por cada contribuyente.

5. Este tipo de cuentas deberán identificarse separadamente en la autoliquidación del Impuesto, consignando, al menos, los siguientes datos:

- Entidad en la que se ha abierto la cuenta.
- Número de la cuenta.
- Fecha de apertura de la cuenta.
- Incremento del saldo de la cuenta correspondiente al ejercicio.

6. Cuando se pierda el derecho a las deducciones practicadas, el contribuyente vendrá obligado a sumar a la cuota del Impuesto devengada en el ejercicio en que se hayan incumplido los requisitos, las cantidades deducidas más los intereses de demora a que se refiere el artículo 26 de la Norma Foral General Tributaria.

VI. TITULUA
ZERGAREN KUDEAKETA

I. KAPITULUA
AUTOLIKIDAZIOAK

74. artikulua.—Autolikidazioa egiteko betebeharra

1. Zergadunek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko autolikidazioa aurkeztu eta sinatu behar dute, Zergari buruzko Foru Arauko 104. artikuluan eta araudi honetan xedatutakoaren arabera.

2. Autolikidazio ereduak eta autolikidazio modalitate erraztu edo bereziaz baliatzeko modua Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onetsiko ditu. Foru diputatu horrek berak zehaztuko du aitorpena nola, non eta noiz aurkeztu behar den, bai eta autolikidazioa baliabide telematikoen bidez zein kasutan eta nola aurkez daitekeen ere.

Autolikidazioak aurkezterakoan, zergadunek beraiei buruz eskatzen zaizkien datu guztiak bete behar dituzte, eta haiekin batera dagoeneko ezarrita dauden edo ezarriko diren agiriak eta frogagiriak aurkeztu behar dituzte.

3. Zerga batera ordaintzea hautatuz gero, famili unitateko kide adin nagusiek sinatu eta aurkeztu behar dute aitorpena; kide horiek famili unitateko seme-alaben ordezkari legez jardungo dute, Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 44. artikuluan xedatu bezala.

4. Autolikidazioak egiteko, horretarako dauden bitarteko eta prozesu informatikoak edo beste mota batekoak edo horretarako dauden zerbitzuak erabil daitezke, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarritako baldintzetan.

75. artikulua.—Autolikidazioa egiteko betebeharraren salbuespenak.

1. Zergadunek ez dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko betebeharririk izango, eurek lortutako errenten jatorria honako hau bakarrik denean:

a) Lanaren etekin gordinak, urtean 9.000 euroko mugarekin banako zerga-ordainketan, araudi honetako hurrengo artikuluko h) idatz-zatian ezarritako kasuetako batean egon ezean. Muga hori, baterako zerga-ordainketan, etekin mota hori lortu duten zergadunetako bakoitzari aplikatuko zaio.

b) 9.000 eurotik gorako eta 20.000 euro bitarteko lanaren etekin gordinak urtean, banako zerga-ordainketan, araudi honetako hurrengo artikuluko kasuetako batean egon ezean. Muga hori, baterako zerga-ordainketan, etekin mota hori lortu duten zergadunetako bakoitzari aplikatuko zaio.

c) Kapitalaren etekin gordinak, salbuesitakoak barne, eta ondare-irabaziak, denetara urtean 1.600 euro baino gehiago ez badira.

2. Aurreko paragrafoan jasotzen dena eragotzi gabe, konturako ordainketen itzulketa lortzeko derrigorrez aurkeztu behar da autolikidazioa.

76. artikulua.—Autolikidazioa egiteko betebeharraren kasu bereziak

1. Aurreko artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako kasuetan, honako egoera hautakoren batean daudenek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu behar dute:

a) Batetik, zergaldian zehar ordaintzaile batek baino gehiagok ordaindutako etekinak jasotzen dituzten zergadunek, edo, etekinak ordaintzaile batengandik bakarrik jasotzen dituzten zergadunek, baldin eta etekinok ordaintzaileak ez baditu metatzen haiei dagokien atxikipena kalkulatzeko, etekin horiek kontzeptu beragatik edo ezberdinegatik ordaindu dizkielako zergadunei. Bestetik, zergaldian zehar lan-kontratu bat baino gehiago edo lan-harreman —administratiboa nahiz bestelakoa— bat baino gehiago sinatu duten zergadunek.

b) Kontratu edo harreman baten hasieran hitzartutako epealdia amaitutakoan enplegatzaile berari zerbitzuak egiten jarraitzen duten zergadunek, edo zergaldi berean berriro egiten dizkietenek, bai eta lan-kontratu edo lan-harremana —administratiboa nahiz bestelakoa— luzatu dutenek ere.

TÍTULO VI
GESTIÓN DEL IMPUESTO

CAPÍTULO I
AUTOLIQUIDACIONES

Artículo 74.—Obligación de autoliquidar

1. Los contribuyentes estarán obligados a presentar y suscribir autoliquidación por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en los términos previstos en el artículo 104 de la Norma Foral del Impuesto y en el presente Reglamento.

2. Los modelos de autoliquidación, así como la utilización de modalidades simplificadas o especiales de autoliquidación, se aprobarán por el diputado foral de Hacienda y Finanzas que establecerá la forma, lugares y plazos de su presentación, así como los supuestos y condiciones de presentación de las autoliquidaciones por medios telemáticos.

Los contribuyentes deberán cumplimentar la totalidad de los datos que les afecten contenidos en las autoliquidaciones y presentarlas acompañadas de los documentos y justificantes establecidos o que se establezcan.

3. En caso de optar por la tributación conjunta, la declaración será suscrita y presentada por los miembros de la unidad familiar mayores de edad, que actuarán en representación de los hijos integrados en ella, en los términos del artículo 44 de la Norma Foral General Tributaria.

4. Las autoliquidaciones se podrán efectuar utilizando o aprovechando medios, procesos informáticos o de otro tipo o servicios, en los términos que se establezcan por el diputado foral de Hacienda y Finanzas.

Artículo 75.—Exclusión de la obligación de autoliquidar

1. No estarán obligados a autoliquidar el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas los contribuyentes que obtengan rentas procedentes exclusivamente de las siguientes fuentes:

a) Rendimientos brutos del trabajo, con el límite de 9.000 euros anuales en tributación individual, salvo que se encuentren incluidos en alguno de los casos previstos en la letra h) del artículo siguiente. Este límite operará en tributación conjunta respecto de cada uno de los contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos.

b) Rendimientos brutos del trabajo superiores a 9.000 euros y hasta el límite de 20.000 euros anuales en tributación individual, salvo que se encuentre en alguno de los supuestos contemplados en el artículo siguiente de este Reglamento. Este límite operará en tributación conjunta respecto de cada uno de los contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos.

c) Rendimientos brutos del capital, incluidos los exentos, y ganancias patrimoniales que no superen conjuntamente los 1.600 euros anuales.

2. Sin perjuicio de lo previsto en el apartado anterior, para obtener la devolución de los pagos a cuenta efectuados será necesaria la presentación de la autoliquidación.

Artículo 76.—Supuestos especiales de la obligación de autoliquidar

1. En los supuestos a que se refiere la letra b) del apartado 1 del artículo anterior, estarán obligados a presentar autoliquidación por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quienes se encuentren en cualquiera de los supuestos siguientes:

a) Contribuyentes que, durante el período impositivo, perciban rendimientos del trabajo procedentes de más de un pagador o bien del mismo pagador pero que por satisfacer rendimientos por conceptos iguales o diferentes, no los acumule a efectos de practicar la retención correspondiente, así como quienes hubiesen suscrito, dentro del período impositivo, más de un contrato de trabajo, o relación laboral, administrativa o de otro tipo.

b) Contribuyentes, que al concluir el período inicialmente previsto en un contrato o relación, continuasen prestando sus servicios al mismo empleador o volviesen a hacerlo dentro del período impositivo, así como cuando hayan prorrogado su contrato de trabajo o relación laboral, administrativa o de otro tipo.

c) Ezkontideak edo izatezko bikotekideak emandako konpentsazio-pentsioak edo mantenu-urtekoak jasotzen dituzten zergadunek, gurasoek epai-erabaki bidez jasotzen dituzten mantenu-urtekoak ez badira.

d) Foru erakundeek onartu ez duten araudi baten arabera kalkulatu diren edo Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiren batean ordaindu ez diren lanaren atxikpenak edo konturako sarrerak jasan dituzten zergadunek.

e) Ordainsariak gizalanean edo eguneko lansaritan jasotzen dituzten zergadunek.

f) Arrantza-ontzietako langileek, baldin eta ordainsari gisa, ordainsari oso edo partzial gisa, harrapatutako arrantzaren balioaren edo bolumenaren parte bat jasotzen badute.

g) Emaitzen edo antzeko parametroen arabera ordainsari aldatzeko jasotzen dituzten zergadunak, baldin eta ordainsari horiek atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea Zergari buruzko Foru Arauko 109. artikuluan jasotzen den moduan kalkulatzeko kontuan hartu direnak baino handiagoak badira.

h) Salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo beste edozein zerga onuraz gozatzeko ezarrita dauden baldintza, epe edo inguruabarretako bat betetzen ez duten zergadunek, baldin eta ez-betetze horrek berarekin badakar Zerga Administrazioari inguruabar hori jakinarazi behar izatea edo erregularizazio edo diru sarreraren bat egin behar izatea.

2. Aurreko paragrafoko a) idatz-zatitik g) idatz-zatira jasotzen diren egoeretako batean egoteagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztera behartuta dauden pertsonak honako aukera hauek dituzte:

— zerga Zergaren xedapen orokorren arabera ordaintzea, edo.

— zerga soilik lanaren etekinak kontuan hartuta ordaintzea, honako erregela hauen arabera:

a) Lanaren etekinetarako finkatutako atxikipen-portzentajeen taulak aplikatuko zaizkio sortutako etekin mota horren zenbateko osoari, Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden etekinei izan ezik. Ondorio horietarako, atxikipenari lotutako etekinen zenbatekoak zehazteko zein atxikipen taulak finkatu eta aplikatzeko zergaren sortzapen egunean indarrean dauden erregelak hartuko dira kontuan.

b) Aurreko a) idatz-zatian ezarritakoa aplikatu ondoren ateratzen den kopuruari lanaren etekinei egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa gutxituko zaio. Hortik ateratzen den kopurua ordaindu behar zaio Foru Aldundiari, eta araudi honetako 77. artikuluko 2. paragrafoan xedatzen denaren arabera zatikatu daiteke. Zergak ordaintzeko prozedura hau erabiliz gero, inoiz ez da itzulketarik egingo.

c) Inoiz ez da aplikatuko gastu kengarririk, hobaririk, murrizketarik, kenkaririk, baterako zerga-ordainketarako erregelarik edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian jasota dagoen beste edozein onurarik.

77. artikulua.—Autolikidazioa eta zerga-zorra sartzea

1. Zergadunek, autolikidazioa aurkezten dutenean, zehaztu egin behar dute zein den euren zerga-zorra, bai eta sartu ere, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen leku, era eta epe-etan.

2. Autolikidazioaren emaitza gisa ateratzen den zenbatekoa zatika sartu ahal izango da, interesik eta errekargurik gabe, zati bitan:

a) Lehenengo zatia, zenbatekoaren %60, autolikidazioa aurkezten denean sartuko da;

b) Bigarrena, gainerako %40a, autolikidazioa aurkezten den urteko azaroaren 10a baino lehen.

Ordainketa prozedura horri heldu ahal izateko, beharrezkoa izango da autolikidazio horretarako ezarrita dagoen epearen barruan aurkeztea. Autolikidazio osagarriak ezin dira, aurreko lerroaldean ezarritako prozeduraren arabera, zatika sartu.

c) Contribuyentes que perciban pensiones compensatorias recibidas del cónyuge o pareja de hecho, o anualidades por alimentos, diferentes a las percibidas de los padres en concepto de anualidades por alimentos en virtud de decisión judicial.

d) Contribuyentes que hayan soportado retenciones o ingresos a cuenta del trabajo calculados de acuerdo con una normativa diferente a la aprobada por las Instituciones Forales o que no hayan sido ingresadas en alguna Diputación Foral del País Vasco.

e) Contribuyentes que perciban sus retribuciones por peonadas o jornales diarios.

f) Trabajadores de embarcaciones de pesca cuando sus retribuciones consistan, total o parcialmente, en una participación en el valor de la pesca capturada o en el volumen de la misma.

g) Contribuyentes que perciban retribuciones variables en función de resultados u otros parámetros análogos, siempre que estas retribuciones superen a las tenidas en cuenta para el cálculo del porcentaje de retención o ingreso a cuenta en los términos del artículo 109 de la Norma Foral del Impuesto.

h) Contribuyentes que incumplan alguna de las condiciones, plazos o circunstancias establecidas para el derecho a disfrutar de alguna exención, bonificación, reducción, deducción o cualesquiera beneficio fiscal que conlleve o implique la necesidad de comunicar a la Administración Tributaria dicha circunstancia o de efectuar regularización o ingreso.

2. Los contribuyentes que estén obligados a presentar autoliquidación por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, por encontrarse en alguna de las situaciones previstas en las letras a) a g) del apartado anterior, podrán optar entre:

— tributar de acuerdo con las disposiciones generales del Impuesto, o

— tributar, teniendo en cuenta exclusivamente los rendimientos del trabajo, según las siguientes reglas:

a) Se aplicarán las tablas de porcentajes de retención, establecidas para los rendimientos del trabajo, sobre el importe total de este tipo de rendimientos devengados, excepto los que se encuentren exentos de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto. A estos efectos, se tendrán en cuenta las reglas de determinación del importe de los rendimientos sometidos a retención y las de fijación y aplicación de las tablas de retención vigentes a la fecha del devengo del Impuesto.

b) La cantidad resultante como consecuencia de la aplicación de lo establecido en la letra a) anterior, se minorará en el importe de las retenciones e ingresos a cuenta efectuados sobre los rendimientos del trabajo. La cantidad resultante será la que deberá ingresarse en la Diputación Foral y podrá fraccionarse de conformidad con lo previsto en el apartado 2 del artículo 77 de este Reglamento. En ningún caso procederá devolución alguna como consecuencia de la utilización de este procedimiento de tributación.

c) En ningún caso serán de aplicación gastos deducibles, bonificaciones, reducciones, deducciones, reglas de tributación conjunta o cualquier otro incentivo previsto en la normativa reguladora del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Artículo 77.—Autoliquidación e ingreso de la deuda tributaria

